

Prentsaurrekoa
100 urteko futbola Santurtzin
Spartaren Mendeurrena
2021eko ekainaren 25ean

Spartaren mendeurreneko bandera



1921eko apirilean, Santurtzin (Bizkaia, Euskal Herria) herriko lehen futbol-taldea sortu zen: Sparta Club. Urtemuga hori dela eta, eta Hasten elkarte soziokulturalak futbolariek herrian 100 urte egin dituela-eta antolatutako ospakizunen barruan, Juan Jose Gonzalez bilbotar bexilologo ospetsuak Spartaren mendeurreneko bandera sortu du.

Banderak tamaina bera duten bi marra horizontal ditu, goikoa zuria eta behekoa gorri bizia. Bi kolore horiek erabili zituen duela mende bat Santurtziko taldeak. Banderaren luzeraren herenean, ezkutu hoplita biribil bat agertzen da, Charly Urbina diseinatzaile grafikoak egin, eta honen erdian kasko espartar bat dago (unibertsalki ezagutzen den gerlari mitikoaren elementua) mendeurreneko datekin batera: 1921-2021. Ezkutuaren ezker aldean, taldearen izena dago letra larriz. A hizkiaren ordez lambda hizkia jarri dute, espartarrek armarrietan zeramaten ikurra. Aditu bilbotarrak aurkeztutako banderaren konposizioa erraz identifikatzen den lana da, eta kirol ikurren esparruan duen berezitasunagatik bakarra.